Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko otsailaren 13a, osteguna — 29 — Jueves, a 13 de febrero de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AIZARNAZABALGO UDALA

*2020ko Deialdia. Aizarnazabalen kokatuak dauden eraikinetako fatxadak birgaitzeko diru laguntzak emateko Ordenantza Arautzailea.*

Aizarnazabalgo Udalak, 2016ko abenduaren 16ko Udal Osoko Bilkuran, Aizarnazabalen kokatuak dauden eraikinetako fatxadak birgaitzeko diru laguntzak emateko ordenantza Arautzailea onetsi zuen. Ordenantza argitaratua izan zen 2017ko martxoaren 20 eta 31ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

Aizarnazabalgo Udalak, 2020ko urtarrilaren 31an burututako Udal Osoko Bilkuran, 2020 urteko deialdia egitea erabaki du, ondorengo baldintzapean:

1. *Eskabideak aurkezteko epea:*

Iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasi eta 2020ko uztailaren 31rarte.

2. *Eskabideak eta aurkezteko beharrezko agiriak:*

Diru laguntza eskaerak Aizarnazabalgo Udalean aurkez daitezke bulego orduetan, eskabide orokorra betez, eta eskabide honi, ondorengo agiriak erantsi beharko zaizkio:

— Eskatzailearen datuak: eraikinaren jabe guztien nortasun agiriaren dokumentua eta jabeen komunitatearen IFZ zenbakia.

— Eskatutako diru laguntzaren helburuko obra: Teknikari eskudunak egindako proiektua edo, aditu baten parte hartzea beharrezkoa ez balitz, aurreikusitako obren memoria, horien deskripzioa, egikaritzeko epea, fatxadaren oraingo egoeraren argazkia eta Aurrekontua jasoz.

— Obra egin ahal izateko Udal baimena eskatu denaren agiria.

— Eraikinaren ITEren eskaera agiria, hori egiteko beharra balego.

Era guztietara, onuradunek, Diru laguntza Orokorren azaroak 17ko 38/2003 Legeak galdaturiko ukan beharrak bete beharko dituzte.

3. *Ekonomia-baliabideak:*

Diru laguntza lineal bat eta itzuli beharrik gabekoa ezartzen da % 25ko aurrekontu babesgarriaren gainean, fatxada nagusietarako, tarteko hormetarako, atzeko fatxadetarako, teilatuhegaletako eta merkataritzako lokalen gaineko jardueretarako. Diru laguntza gehienez 2.000 €. Dena dela, eta banaketa proportzionalaren arabera, urteko deialdiaren diru laguntzen balio osoa, ezarritako aurrekontuaren kontu sailera egokituko da.

Akordio hau behin betikoa da eta bide administratiboari amaiera ematen dio.

Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

## AYUNTAMIENTO DE AIZARNAZABAL

*Convocatoria de 2020. Ordenanza Reguladora para la concesión de ayudas de rehabilitación de fachadas en edificios situados en Aizarnazabal.*

El Ayuntamiento de Aizarnazabal en su sesión plenaria celebrada el día 16 de diciembre de 2016 aprobó la Ordenanza reguladora de concesión de subvenciones para rehabilitación de fachadas de edificios situados en el municipio de Aizarnazabal. Siendo publicada la ordenanza en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 20 y 31 de marzo de 2017.

El Ayuntamiento de Aizarnazabal en Sesión Plenaria celebrada el día 31 de enero de 2020, ha acordado aprobar la convocatoria de 2020 con las siguientes condiciones:

1. *Plazo de presentación de solicitudes:*

Desde el día siguiente a la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, hasta el día 31 de julio de 2020.

2. *Solicitudes y documentación a presentar:*

Las solicitudes de subvención podrán presentarse en el Ayuntamiento de Aizarnazabal, cumplimentando una instancia de solicitud a la que se acompañarán los siguientes documentos:

— Datos del solicitante: Documento de identidad de todos los propietarios del edificio y número del NIF de la comunidad de propietarios.

— Obra para la que se solicita la subvención: Proyecto redactado por técnico competente o, en caso de no ser preceptiva la intervención de un facultativo, memoria de las obras previstas que contenga la descripción de las mismas, plazo de ejecución, fotografía del estado actual y Presupuesto.

— Copia de la instancia de solicitud de licencia municipal de obras.

— Copia de la instancia de solicitud de ITE del edificio si tuviera obligación de presentarlo.

En todo caso los beneficiarios deberán reunir los requisitos exigidos por la Ley 38/2003 de 17 de noviembre General de Subvenciones.

3. *Recursos económicos:*

Se establece una subvención lineal y a fondo perdido sobre el presupuesto protegible del 25 %, tanto para fachadas principales, paredes medianeras, fachadas traseras, actuación sobre aleros y bajos comerciales. El valor de subvención máximo será de 2.000 €. En todo caso y mediante un reparto proporcional, el valor total de las subvenciones de la convocatoria anual, se ajustará a la partida presupuestaria establecida en el presupuesto municipal en vigor.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él Recurso Contencioso Administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

EK\CV GAO-I-2020-00789

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertzeko Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Udal Osoko Bilkurari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Aizarnazabal, 2020ko otsailaren 1a.—Mari Carmen Arregi Agirre, alkatea. (789)

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso Potestativo de Reposición ante el Ayuntamiento Pleno, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

Aizarnazabal, a 1 de febrero de 2020.—La alcaldesa, Mari Carmen Arregi Agirre. (789)

EK\CV GAO-I-2020-00789